

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN

ETA TURISMOAREN SAILA

Ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak— garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak emateko udal programaren 2020ko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeko erabaki proposamena

2020ko urriaren 23an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak— garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak emateko programaren 2020ko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitzeko erabaki-proposamena. Honela dio:

I. 2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia).

II. Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz telesailak— garatu eta ekoizteko nahiz gidoiak idazteko 2020ko laguntzarako oinarriak eta deialdi publikoa, laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 100.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2020ko ekitaldirako onartutako udal aurrekontuetako 08.21.4331.471.02 "sorkuntzarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako industrientzako laguntzak" partidaren kontura (2020ko ekainaren 19ko ALHAO, 69. zk).

III. 2020ko urriaren 16ko datuz, Enpresen udal zerbitzuko buruak egindako txostenean, "Ikus-entzunezkoen proiektuak garatu eta ekoizteko nahiz gidoiak idazteko laguntzak" udal-programaren deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 17.738,00 eurotan handitzea proposatzen da —deialdiaren 5. oinarriaren arabera horri lotuta dagoen 08.21.4331.4.7102 partidan nahikoa saldo eta egokia zegoela ikusita—, ezarritako irizpideen arabera diruz lagun daitekeen gutxieneko puntuazioa gainditu eta dirulaguntza partziala lortu duten enpresei laguntza ekonomikoa emateko, baldin eta beren proiektua berme eta kalitate osoz gauzatu ahal izateko dagokien dirulaguntza osoa behar badute.

Horretarako zuzkidura nahikoa eta egokia badagoela ikusi da, 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 08.21.4331.4.7102 partidarekiko lotura dela eta.

Tokiko Gobernu Batzarrak du laguntza-deialdiak eta horien baldintzak onesteko eskumena, bai eta dagozkion aldaketak egiteko ere, haren egitekoa baita ekonomi kudeaketa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategi Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen 127. artikuluko 1.g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik.

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak honako erabaki-proposamena egiten du:

Erabaki-proposamena

Lehena. Hamazazpi mila zazpi ehun eta hogeita hamazortzi euroan (17.738,00 euro) handitzea 2020ko "Ikus-entzunezko proiektuak —fikzioa, animazioa, dokumentalak nahiz

telesailak— garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntzak” udal programa finantzatzeko baliabide ekonomikoak. Deialdia 2020ko martxoaren 27an onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak.

Horrenbestez, ehun eta hamazazpi mila zazpi ehun eta hogeita hamazortzi eurokoa (117.738,00 euro) izango da, guztira, aipatutako laguntza-programara bideratutako laguntza ekonomikoa.

Bigarrena. 17.738,00 euroko gastua jasota uztea, 2020ko aurrekontuko 08.21.4331.4.7102 partidarekiko loturan dagoen saldoaren kontura.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn eta udalaren webgunean argitaratzea, adostutakoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen jaso ondoren.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 26an

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
LEIRE GÓMEZ ALCALÁ*